



GEREDIAGA ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN EGITURAKETA, HAUTAKETA ETA ARAUBIDEA (2017. Urtea)

AITZINSOLASA

Euskadiko Elkarteei buruzko legediak (ekainaren 22koa 7/2007 legeak) 15. artikuluan, kide anitzeko gobernu organo bat egotea aurreikusten du: Zuzendaritza Batzordea edo antzeko izenen bat hartuko lukeena, eta elkartea zuzentzeko eta kudeatzeko eginkizunak beteko lituzkeena.

Mezu hori jasoz, Gerediaga elkarteko Estatutuen 6. atalak honako hau dio:

“Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak honango kide anitzeko organoak edo jardute-sailak izango dira:

- *Bazkideen Batzar Nagusia, jardute-sail gorena.*
- *Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritzaren kide anitzeko organo iraunkorra”*

Era berean Estatutuen 8. atalean Zuzendaritza Batzordearen osaketa, hautaketa, baldintzak eta kargua uztearen baldintzak arautzen dira.

Zuzendaritza Batzordeak, Gerediaga elkartean daukan garrantzia aintzat hartuta, Estatutuen 8. atal hura garatzen duen araubidea zehaztuko da.

I. TITULUA

ZUZENDARITZA

BATZORDEA

1.atala.- Batzordearen osaera.

1.-Zuzendaritza Batzordeak Gerediagako Estatutuen arabera honako kideak izango ditu:

- a) Lehendakaria

- b) Lehendakariordea
- d) Idazkari Nagusia
- e) Diruzaina
- f) Beste batzordekideak.

2.- Zuzendaritza batzordeak 10 kide izango ditu.

3.- Lehendakariak hala eskatuz gero, Zuzendaritza Batzordean hurrengo pertsonak ere parte hartuko dute hitzez baina boto barik:

- a) Gerediaga elkarteko kudeatzaileak.
- b) Aholkulariak.

2.atala.- Hautesleak eta hautagaiak

1.- Gerediaga elkarteko Estatutuen arabera, Zuzendaritza Batzordeko kideak, Batzar Nagusiak hautatuko ditu eta 4 urterako izango dira. Batzar Nagusiak ezeztatu ezean, behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kideak zatika berriztuko dira. Lehenengo txandan kideen %50 berriztuko da eta bigarrenean gainerakoak. Hauteskundeak bi urtetik behin izango dira.

3.- Zuzendaritza Batzordekoa izateko honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Estatutuetan eta barne araudian esaten den eran izendatua izatea.
- b) Elkarteko bazkidea izatea.
- d) Adinez nagusi, edo adinez txiki izanez gero bere burujabe izatea, eta herritar eskubide guztiak izatea.
- e) Eskubide zibilen erabilera osoa izatea.
- f) Indarrean dagoen legedian ezartzen diren bateraezintasun- egoeretako batean ez egotea.
- g) Ezin dira Zuzendaritza Batzordeko kide izan konkurtsopekoak eta kargu publiko edo pribatuak betetzeko gaitasungabetuta daudenak.
- h) Hautagaiak ezingo dute izan inolako harreman ekonomikorik elkararekin.

9.- Karguak ordainsari bakoak izango dira. Dena den, Batzar Nagusiak egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

3.atala.- Batzordeko kideek kargua uzteko arrazoiak.

1.- Gerediaga elkarteko Estatutuen arabera Zuzendaritza Batzarreko kideek honako kasuetan utziko dute euren kargua:

- a) Agintaldia betetzean.
- b) Kargua uztean bere borondatez edo kargua aurrera eramateko ezintasunagatik.
- d) Bazkide izateari uztean.
- e) Batzar Nagusiak ezeztearabaki ezkerero.

- f) Heriotzaz.
- g) 5 aldiz jarraian, edo bi urtetan 8 aldiz Batzordearen bileretara ez joategatik, hutsegite horrek ez baditu arrazoitzen.

2.- a) puntuan agertzen dena baldin bada kargua uztearen arrazoia, Zuzendaritza Batzarreko kideek jardueran jarraitu beharko dute lehenengo Batzar Nagusia egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.

3.- b) puntuan agertzen dena baldin bada arrazoia, idatziz aurkeztu behar izango da Zuzendaritza Batzordean.

4.- b), d), f) eta g) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia, Zuzendaritza Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du eta Batzar Nagusiak erabakiko du izendapena onartu edo ezeztatu. Ezeztatu bada, dagokion izendapena egingo du.

II. TITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEA HAUTATZEKO PROZEDURA

4. atala.- Prozesuaren hasiera

1.- Hautaketa prozedura, deialdiarekin zabalduko da. Deialdia egiteko erabakia Zuzendaritza Batzordeak hartuko du.

2.- Deialdia publiko egingo zaie bazkide guztiei bideratutako komunikazio baliabideetatik. Deialdian honakoak zehaztuko dira:

- a) Idazkari Teknikoaren izena eta eginkizunak.
- b) Hautagaitzak aurkezteko epea
- c) Hautagaia aurkezteko modua: hautagaitza idazkariari zuzenduta bialduko da idatziz eta Gerediagako bazkide diren gutxienez 2 pertsonen proposamena-babesa izango du.
- d) Hautagaitza bidaltzeko helbidea, bulegoa edo posta elektronikoa
- e) Bozka emoteko prozeduraren azalpena

3.- Zuzendaritza Batzordeko kide bat izango da idazkari teknikoa. Idazkari teknikoaren eginkizunak hauek izango dira: hauteskunde prozesua gainbegiratzea, egon daitezkeen hutsuneak betetzea, arautegi hau interpretatzea eta jar litezkeen erreklamazioak ebaztea.

5. atala.- Prozedura

1.- Hautagaitzak deialdian jarritako epe barruan aurkeztu behar dira onartuak izateko.

2.- Idazkari teknikoak, aurkeztutako hautagaiek baldintzak betetzen dituztela

bermatu egin beharko du. Bestalde, Idazkari teknikoak ezin izango du hautagai izan.

Batzar Nagusiko deialdian prozeduraren eta hautagaien berri emongo da. Era berean, eta Batzar Nagusiko saioa hasi baino lehen, ordezkari botoak jaso behar ditu. (bazkide bakoitzak boto delegatu 2 gehienez aurkeztu ahal izango ditu)

3.- Idazkari teknikoak, quorum-a jaso eta gero hautagaiak aurkeztuko ditu. Quorum honetan, boto delegatua ere kontutan izango da.

4.- Bozkatzerakoan bazkide bakoitzak eskubidea duen boto bakoitzeko (norberarena eta delegatuenak) bozka txartel bana jaso eta bertan emongo du bere botoa.

5.- Idazkariak batzarreko aktan hurrengo datuak batuko ditu: batzarraren data eta ordua, quoruma, aurkeztutako hautagaiak eta bozketaren emaitza hautagai baliozko bakoitzeko. Hautagairen batek araudi honetako baldintzaren bat ez badu betetzen, hori ere jasoko da.

6.- Zuzendaritzako batzordekide kargua, Batzar Nagusian, bozka txartel bidez egingo da, botorik gehien jaso daben hautagaiak onartuaz.

7.- Batzar Nagusiak hautagaiak berretsi eta 15 eguneko epean Zuzendaritza Batzorde berria eratuko da. Hilabete bateko epean EAEko administrazio erregistroari aldaketa hauen berri emango zaio.

8.- Zuzendaritza Batzordearen eraketa batzarrean lehendakaria, lehendakariordea, diruzaina eta Idazkari Orokorreko ordezkariak aukeratuko dira.

III. TITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN

ARAUBIDEA

7. atala.- Batzordearen aginpidea eta betebeharrak.

1.- Estatutuen arabera Zuzendaritza Batzordearen aginpide eta betebeharrak honako hauek dira:

- a) Gerediagaren estrategia landu, bere ezarpena kontrolatu eta jarraitu.
- b) Gerediagaren bilakaera orokorra eta ekonomikoaren informazioa aztertu.
- d) Bazkideen inplikazioa, lantaldeak eta herri-taldeak bultzatu eta koordinatu.
- e) Batzorde beraren kide bakarreko karguak izendatu.
- f) Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratu, Batzar Nagusiaren arauen arabera eta bere esanetara.
- g) Zuzendaria edo kudeatzailea izendatu edo/eta kargutik kendu.
- h) Elkartearak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egin.
- i) Gastu eta Sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera orria Batzar Nagusiari, onar dezan, aurkeztu.

- j) Bazkide kuotaren zenbatekoa ezarri.
- k) Batzar Nagusien bileretako gai-zerrenda egin eta deialdiak ebatzi.
- l) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzun eta horretarako behar diren neurriak hartu.
- m) Batzar Nagusiak berez izendatua ez duen beste edozein eginkizun.

2.- Zuzendaritza Batzordeak, lanerako beharrezkoa den eraginkortasuna ziurtatzeko asmoz, barne arduradunen lan-autonomia errespetatu egingo du.

3.- Zuzendaritza Batzordekideen erantzunkizunak:

- a) Elkarre, bazkide eta hirugarren pertsonen aurrean erantzun behar dute eragin dituzten kalteengatik eta dolo, erru edo axolagabekeriazko egiteek ekarritako zorrengatik.
- b) Aurreko paragrafoan aipatzen diren pertsonak, eta zehaztutako kasuetan, erantzukizun zibil eta administratiboa izango dute beren eginkizunak betetzera izandako egite eta ez-egiteengatik, bai eta hartu dituzten erabakiengatik ere. Horretaz guztiaz gainera, erantzunkizun penalik izatea ere gerta liteke.
- d) Aurreko bi paragrafoetan adierazitako kasuetan, erantzunkizuna ezin bazaio egotzi paragrafo horietan zehazten diren pertsonetako inori, pertsona horiek guztiek erantzunkizun solidarioa izango dute, salbu eta egiazta badezakete ez zutela egintza horiek onetsi eta betearazterakoan parte hartu edo egintza horien aurka zeudela argi utzi bazuten.

8. atala.- Batzordearen deialdia eta bileren gai zerrenda

1.- Estatutuen arabera Zuzendaritza Batzarra gitxienez bi hilabeteetan behin bildu beharko da, eta elkarrearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den beste aldiz.

2.- Zuzendaritza Batzordeak, Lehendakariak eta horrela balegokio Lehendakariordeak, euren kabuz erabakitako bakoitzean egingo ditu bilera, nahiz lau batzordekideek eskatu.

3.- Bileretarako gai zerrenda eta deialdirako proposamena, kudeatzaileak idatziz egingo du eta lehendakariari azalduko dio bere onespenerekin baimentzeko. Hala ere, arrazoi ezberdinengatik, gai zerrendan edo gidoian agertzen ez diren gaiak aztertu ahal izango dira Zuzendaritza Batzordean.

4.- Edozein batzordekideek zein bazkidek aukera izango du zerrendarako gairen bat proposatzeko. Hala ere, Lehendakariari dagokio gai zerrenda hori onartzea eta bere ebatziaren berri ematea.

5.- Deialdia batzordekide guztiei bidaliko zaie posta elektronikoz egun bi lehenago gutxienez. Era berean, gerediaga.com webgunean, batzordekideen txokoa kopia bat jaso ahal izango dute juntakideek. Posta elektronikoz ezin denean kudeatzaileak neurri bereziak erabiliko ditu.

9. atala.- Batzordeko ardura eta antolaketa

1.- Batzordeko buru lehendakaria izango da edo, bertan ez balego, lehendakariordea. Biak falta izan ezker, adinez zaharrena den batzordekidea.

2.- Lehendakariari dagokio besteak beste:

- Bilerei hasiera eta amaiera emotea.
- Gai zerrenda aldatu eta barriztea.
- Gaien ordena aldatzea
- Hitz egiteko txandak antolatzea, hitz egiteko aukera emon, kendu eta eztabaidei hasiera eta amaiera ematea.
- Bileren bilakaera antolatzea.

3.- Kudeatzaileari batzarrak gauzatzea dagokio, besteak beste azpiegitura ziurtatuz: lokala, tresna informatikoak, dokumentazioa, e.a.

4.- Zuzendaritza batzordeak erabakiak hartzeko, derrigorrezkoa izango da batzordekideen erdiak gutxienez bertaratua izatea.

5.- Zuzendaritza batzordearen erabakiak balioa izateko nahitaezkoa izango da erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz harturik egotea eta aktetan jasota egotea,

10. atala.- Lan taldeak eta herri taldeak

1.- Jardueran laguntzeko asmoz, Zuzendaritza Batzordeak bazkideen partaidetza bultzatuko du lantalde eta herri-talde bidez.

2.- Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du lantalde bakoitzaren eratzea, bere osaketa eta ardura.

3.- Lantaldeak jarduera zehatz batean parte hartzeko gogoaz azaltzen duten bazkideen artean osotuko dira, Zuzendaritza Batzordeari informatuz.

4.- Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du lantaldeen koordinazioaz arduratuko den batzordekidea. Herri taldeko koordinazioaz artekaria arduratuko da.

5.- Lantalde eta herri-talde bakoitzaren erabakiak aurrera eramateko, behar izanez gero, berezko aurrekontua eta ahalmenak edukiko dituzte. Ahalmen bereziak koordinazioaz arduratzen den batzordekidearen erantzunkizunean geldituko da. Hala ere, aurrekontua eta ahalmenak aldeztatik Zuzendaritza Batzordeak onartu behar izango ditu.

6.- Lantalde eta herri-talde bakoitzak bere azpiegitura eta organigrama erabakiko ditu.

7.- Kudeatzaileak eta lehendakariak aukera izango dute edozein lantalde zein herri-talderen bileretara joateko.

11. atala.- Azpibatzaileak

1.- Zuzendaritza Batzordeak behar den beste azpibatzaile izendatuko ditu barne lana prestatu edo bizkortzeko.

2.- Azpibatzaile horien artean ondokoak egon daitezke:

- Batzorde Iraunkorra

- Estrategia Batzordea
- Ekonomi jarraipenerako Batzordea
- Balorazio Batzordea

3.- Azpibatzerdeen kideak Zuzendaritza Batzordekideak izan beharko dira. Besterik ez bada erabakitzen, kudeatzaileak ere azpibatzerdeetara joateko eskubidea izango du; hitzez baina botu barik.